

BATASUNAREN DATA GARRANTZITSUENAK

1957 Europako Ekonomia Erkidegoaren sorrera. Merkatu Batua ere deitzen zaio. Sei estatuk (Belgika, Frantzia, Mendebaldeko Alemania, Italia, Luxemburg eta Herbehereak) antolatutako erakundea.

1973 Erresuma Batua, Irlanda eta Danimarka 1973an sartu ziren. Merkatu honen berezitasunak hauek dira: merkantziak, pertsonak eta kapitalak estatu batetik bestera libreki ibili ahal izatea, estatu partaide guztientzat aduana-zerga berdinak edukitzea, nekazaritza eta garraioetan politika koordinatu bat egitea.

1979 Europako Parlamenturako lehenbiziko hautapena.

1981 Ellada (Grezia) sartu.

1986 Espainia eta Portugal sartu.

1987 Europako Agiri Bakuna: Arautegi honek mugak eta aduanak bertan beheara utzi zituen.


1992 Maastricheko bilera: moneta-batasunarekiko arauak. *Europar Batasuna* izena aukeratu zuten.

1993 Merkatu bakarraren hasiera.

1995 Sverige, Finland/Suomi, Österreich eta Deutschland Batua sartu.

2004: Èeskaá Republika, Kipros/ KYÐÑÍÓ, Slovensko, Slovenija, Eesti, Magyarország, Latvija, Lietuva, Malta eta Polska sartu.

2007: Türkije, Româria, Bãlgarija sartuko?



Labirinto honek hiru sarrera izan arren, bakar batek eramango zaitu irteerara. Ea asmatzen duzun!

Construyamos juntos Europa, Paola Mauro. © Comunidades Europeas, 1997

Erne!

Goiko testuko jatorrizko hizkuntzaz eta grafiaz idatzita dauden herri izenak azpimarratu eta euskaraz eta gaztelaniaz eman.

- Berdin idazten eta esaten al ditugu? Zergatik?
- Ba al dakizu zer den izendegi bat eta zertarako balio duen?
- Zer diote Euskaltzaindiaren 50, 51 eta 52 arauak?

Azken galdera honen erantzuna bilatzeko jo ezazu hurrengo helbidera:

<http://www.euskaltzaindia.net/arauak/>

Zein izan zen Erroman, 2003. urtean, egindako Gobernuarteko Konferentziaren helburu nagusia?

http://www.europa.eu.int/abc/history/index_en.htm

